

ADIKZIOEI BURUZKO UDAL-PLANA ERMUKO UDALA

1. Planaren justifikazioa

Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak ezartzen du zer erantzukizun duten udalek tokian tokiko adikzio-planen prestakuntzan eta garapenean.

2016ko amaiera aldera ekin genion Adikzioei buruzko eta Osasuna Sustatzeko Ermuko Udalaren Tokiko Plana prestatzeari 2018-2022 eperako.

Adikzioak Prebenitzeko Tokiko Plan batek, gure iritziz, dagokion udal-organoak onetsitako dokumentu batean egituratu, koordinatu, planifikatu eta formalizatutako zenbait programa eta jardueraren multzo ordenatua izan behar du.

Ezaugarri nagusi hauek ditu Planak:

- Udalbatzak sustatzen du tresna hori, bai eta proposatzen diren ekintzak eta programak ere.
- Gaingiditu nahi diren arazoei aurre egiten laguntzea du xede, eta adikzioen fenomenoari aurre egiteko programetarako printzipio orokorrak eta berariazkoak ditu oinarri.
- Ahalik eta erakunde eta administrazio gehienek partaidetza sustatu behar du, prestatzen hasten den unetik, egoeraren azterketa egokia izateko abiapuntu.
- Adikzioen fenomenoari ikuspegi integral batetik ekitea du helburu, bai legezko drogei, bai legez kanpokoei dagokienez.
- Tresna dinamikoa izan behar du, hots, eragile duen egoera sozialaren aldaketetara egokitu behar du.
- Tresna integratzailea izan behar du, administrazioaren maila guztietako erantzunei eta zerbitzuek egiten dituzten ekarpenei koherentzia emateko ahalmena duena, baliabideak errentagarri bihurtuz eta ekimenak bateratuz.
- Etengabe ebaluatu behar da.
- Bi esku-hartze-maila desberdinetarako (unibertsala eta selektiboa) estrategiak eta ekimenak proposatu behar ditu, eta hiru jarduera-eremutan banatu haietako bakoitza (eskola, familia eta gizartea).
- Batez ere eskaria murriztea izan behar dute helburu ekimenek (prebentzioa eta arriskuak gutxitzea), eskaintza gutxitzearekin lotura duten zenbait alderdi ere aintzat hartuz, dagokion eskumen-eremuan.

2. Erreferentziako legeak eta planak

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Legea

Berariaz ezartzen ditu alor horretan udalei dagozkien eskumenak.

68. artikulua. Udalen eskumenak.

Hona Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagozkien eskumenak beren lurralde-eremuetan:

1. Adikzioei buruzko Tokiko Plana prestatzea, garatzea eta ezartzea, bai eta alor horretako programa eta ekimen oro ere, lege honek eta Adikzioei buruzko Euskadiko Planak agintzen dutenari jarraikiz.
2. Adikzioen alorreko aholkularitza- eta koordinazio-organoen sorrera eta funtzionamendu-erregimena, bakoitzari dagokion eremuan.
3. Adikzioen alorreko lana dela-eta jasotzen diren aintzatespenen eta sarien kudeaketa, bakoitzari dagokion eremuan.
4. Begiratzea eta zaintzea lege honek aurreikusten dituen kontrol-neurriak betetzen diren.
5. Ikuskapen- eta zehapen-ahalmenaz baliatzea, lege honetan aurreikusten denari jarraikiz.

9. artikulua. Osasun-hezkuntza.

1. Osasun-hezkuntza dute oinarrizko estrategia adikzioen eta droga-mendekotasunen tratamendu integralerako neurriek eta jarduerak, eta, osasun publikoaren ikuspegitik, osasun-hezkuntza oinarrizko estrategia bat da, bai osasuna sustatzeko, bai adikzioak eta droga-mendekotasunak prebenitzeko.
2. Osasun-hezkuntzak erantzukizun pertsonala eta soziala bultzatuko ditu, ezagutza, jarrera eta ohitura osasuntsuak hedatuz, eta norberaren balioak, jarrerak eta gaitasunak garatzen lagunduko, osasun indibiduala eta kolektiboa hobetzeko betiere, norberaren eta besteen osasuna zaintzeko erabakirik egokienak hartzen irakatsiz.
3. Halaber, osasun-hezkuntzak honako hau ere izan behar du helburu: drogekiko eta mendekotasun-sortzaile diren beste substantzia batzuekiko adikzioak eta loturak saihestea, kontsumoari zein jokabideei dagokienez, bai eta haiek eragiten dituzten arrisku-faktoreak ere.
4. Osasun-hezkuntzan esku hartu behar dute estrategia hori bultza eta heda dezaketen pertsona eta talde guztiek, batez ere bereziki ahulak diren pertsonen eta taldeen dagokienez.

13. artikulua. Adikzioen prebentzioa.

1. Administrazio publikoek, bakoitzari dagozkion eskumenen arabera, prebentzio-neurriak hartu behar dituzte herritarrak sentsibilizatzeko eta informatzeko, batez ere osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetan.
2. Botere publikoek, dagozkien jarduera-eremuetan, esku-hartze prebentiboak bultzatu behar dituzte herritarren bizi-baldintzak hobetzeko, adikzioetan eragina izaten duten bazterketa-faktore pertsonalak, familiarrak eta sozialak gainditzeko eta, azkenik, arazoak dituztenak beren komunitate-ingurunean normaltasunez integratzeko. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, lehentasuna eman behar zaie bazterketa aztertzeko eta haren egiturazko zergatiak prebenitzeko ekimenei, herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzekoei, eta bultzatu egin behar dituzte gizarte-zerbitzuek.
3. Lege honen 9. artikuluan osasun-hezkuntzaz jasotzen diren helburu orokorren osagarri, prebentzio-lana ere egin behar dute osasun publikoko zerbitzuek eta lehen osasun-arretakoek, eremu komunitarioko eragileekin koordinatuta, bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko estrategia eta programen, informazio-ekintzen eta ohitura desagokiak edo abusuzkoak detektatzeko eta aldatzeko kanpainen bidez.

15. artikulua. Prebentzioa familian.

1. Familia funtsezkoa izaki seme-alaben heziketarako eta adikzioak prebenitzeko estrategiak, balioak, trebetasunak eta gaitasunak transmititzeko, gurasoak eta tutoreak sentsibilizatzeko esku-hartzeak eta programak jarri behar dira martxan, haurtzaroan eta nerabezaroan babes-faktoreak sustatzeko zenbateko garrantzia duten ohar daitezen.
2. Arreta berezia jarri behar da familian esku-hartze prebentiboan, honetarako:
 - Hezkuntza-alorreko eta familia kudeatzeko gaitasunak hobetzeko.
 - Droga-mendekotasunarekiko eta -kontsumoarekiko familiaren erresistentzia sendotzeko.
 - Arrisku-faktoreak murrizteko eta substantzien kontsumo problematikoetatik babesteko faktoreak sendotzeko seme-alaben artean, familia prebentzio-eragile bihurtuz, batez ere adingabeak eta gazteak dituzten familiak.
3. Administrazio publikoek lankidetzaren eta koordinazio-eremu eraginkorrak eta efizienteak ezarri behar dituzte alor horretan esku hartzen duten organismo publiko eskumendun guztien, guraso-elkarteen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu eta publikoen artean.
4. Prebentzio-neurri hauek hartu behar dira, besteak beste: Arriskuak edo ahuleziak gehien pairatzen dituzten familientzako neurriak.
 - Informazioa, aholkularitza, orientabideak eta esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala. [...]
 - Gizarte-zerbitzuen esku-hartzea familietan, arrisku sozialik baldin badago.

16. artikulua. Prebentzio eremu komunitarioan.

1. Lehenetsuna du eremu komunitarioko prebentzioak, eta biztanleriara edo arretarik handiena behar duten taldeetara bideratu behar ditu pertsonak eta baliabideak; besteak beste, ikastetxeetara, zerbitzu soziokulturaletara; gazte-, kultura-, kirol- eta boluntariotza-elkarteetara, profesionalen elkargoetara eta lantokietara.
2. Ahal dela, udalek eta partzuergoek arduratu behar dute, dagozkien eskumenen arabera, eredu komunitarioko prebentzioaz, hurbil baitaizkate beren zerbitzuen hartzaileak eta partaide dituzten komunitateak.

22. artikulua. Prebentzioa kirolean, aisialdian eta denbora librean.

1. Osasun-, gazteria-, kirol-, kultura- eta hezkuntza-alorretan eskumendun diren EAEko administrazio publikoek aisialdiaren erabilera-ereduei buruzko politika integral eta alternatiboa sustatu behar dute, substantzien kontsumoa eta portaeraren arloko adikzioak eragin ditzaketen jokabide arriskutsu eta abusuzkoen ordezkia.
2. Horretarako, honako hau egin behar dute, besteak beste:
 - Dibertsioaz, aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko modu osasungarriak eta dibertsifikatuak erabiltzea.
 - Teknologia digitalen erabilera arduratsua sustatzea, bai eta haiek dibertsio, aisialdi eta denbora librerako dituzten aplikazioena ere.[...]
 - Gazte-elkartegintza sustatzea, bai eta gazteen elkarten partaidetza ere okupazio-, aisialdi-, kirol- eta kultura-programetan, batez ere arriskurik handieneko talde sozialen artean.

Adikzioei buruzko Euskadiko VI. Plana (2011-2015) eta Adikzioei buruzko VII. Plana (2017-2021)

Tokiko planetan, Adikzioei buruzko EAEko VI. Planaren arabeko estrategiak erabili ohi dira, normalean.

- **Eskaintzaren kontrola:** Drogaren eta jokoaren presentzia eta eskaintza gutxitzeko neurriak hartzea, indarrean den legediari egokituta betiere.
- **Prebentzio unibertsala:** Biztanleria orokorrarentzako programak edo ekintzak antolatzea, edo inongo arrisku-faktoreen arabera identifikatuta ez dauden jendemu multzo handientzakoak.
- **Prebentzio selektiboa:** Datu objektiboen arabera drogekin edo jokoarekin lotutako arazoak sor ditzaketen populazio-talde jakin batzuei zuzendutako ekintza-multzoak, kontuan izan gabe droga-erabiltzaileak diren edo adikzioa sor dezakeen jardueraren bat duten.
- **Prebentzio egokitua:** Arrisku handiko jendearentzako esku-hartzeak, drogak kontsumitzen edo bestelako jokabide-arazoak dituztenentzat (joko problematikoa tartean dela); helburua, berriz, ez da bakarrik droga-kontsumoa eta jokozaletasuna murriztea, baizik eta haiekin zerikusia duten arazoak ere gutxitzea eta jokabide horiekiko atxikimendua atzeratzea.

EAEko Gizarte Zerbitzuen Zerbitzu eta Prestazio zorroa (2015)

Zorro horretako 1.5 kapituluak dioenarekin ondo uztartzen da Adikzioei buruzko Prebentzio Komunitarioko Plan bat: **Gizarte Zerbitzuetan parte hartzeko eta haietan integratzeko sustapen-zerbitzua**, "komunitatearen partaidetza antolatua bultzatzen baitu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak lortzeko eta Gizarte Zerbitzuek arta ditzaketen premien prebentzioa eta arreta garatzeko, informazio-, orientazio-, sentsibilizazio- eta trebakuntza-jardueren bidez".

Ikuspegi komunitarioa eta sareko lana erabili behar dira horretarako, osasunaren sustapena xede dela betiere.

Euskadirako Osasun Plana (2013-2020)

Lehentasun-eremuak ezartzen ditu, eta haiei dagozkien helburuak, ekintzak eta adierazleak, adikzioak prebenitzeko programak Haurren eta Gazteen Osasunaren eta ingurune zein jokabide osasungarrien alorretan ezarritakoarekin bat etor daitezten.

Datozen urteotan EAEko herritarren osasuna zaintzeko eta hobetzeko politika sakontzea du xede, zeregin horretara engaiatuz administrazio publiko guztiak, herritarrak eta ekoizpenaren sektorea.

Bestalde, osasunaren ikuspegi integrala aldarrikatzen dute politika horiek, hau da, herritar bakoitzaren osasun galdua edo hondatua berreskuratzeko ahaleginaz gain osasun kolektiboa prebenitzeko eta sustatzeko sektore guztiek egin behar dutena ere gogoan izatea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea (2008)

Udalek gizarte-zerbitzuen alorrean duten eginkizuna egituratzen du: ikuspegi komunitario batetik abiatuta, "herritar guztien ongizatea sustatu behar dute, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta haiekin koordinatuta".

Besteak beste, norberaren autonomia eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea dituzte xede nagusiak.

Euskadiko III. Gazte Plana(2020)

"Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa" ardatzak osasunarekin, gizarte-ekintzarekin, kulturarekin, aisialdiarekin, kontsumoarekin eta mugikortasun jasangarriarekin lotura duten zenbait ekintza jasotzen ditu.

Hona hemen adikzioei eta osasunaren sustapenari dagozkien zenbait helburu:

- Osasun-programen eta-zerbitzuen ezagutza, balioespena eta erabilera egokia sustatzea gazteen artean.
- Ezagutza, ohitura eta jokabide osasungarriak sustatzea gazteen artean.
- Osasunaren aurkako jokabideak murriztea gazteei eragiten dieten alor guztietan.

EAEko familiei laguntzeko erakunde arteko III. Plana (2011-2015)

Osasunaren sustapenari eta adikzioen prebentzioari dagozkion zenbait ekintza proposatzen ditu Planak; hauek, besteak beste:

8. ekintza: Prebentzio-baliabideak erabiltzea arrisku handiko nerabeen (arazomental eta jokabide-arazo larriak dituztenen, adikziorik ez izan arren drogak maiz kontsumitzen dituztenen...) eta haien familien artean.

9. ekintza: Informazio, orientazio eta esku-hartze psikologiko eta psikoedukatiboko baliabide pertsonalizatuak eta taldekakoak sustatzea drogen erabilerarekiko eta jokoarekiko jokabide arriskutsuak dituzten seme-alabadun familientzat, udal- eta foru-zerbitzuekin koordinatuta.

98. ekintza: Familientzako sentsibilizazio- eta informazio-politika garatzea, mezu homogeneoak zabaltzeko osasun mentalari, droga-kontsumoaren prebentzioari eta seme-alaben heziketan gurasoek izan beharreko esku-hartzeari buruz.

107. ekintza: Gurasoen gaitasunak garatzeko programak sustatzea, arriskupean dauden familiei eta herritar guztiei zuzenduak, lehen mailako prebentzio-ikuspegia erabiliz.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia (2015-2020)

OSALANen jarduera-lerroen artean dago, besteak beste, honako hau: lanbide-heziketan diharduten hezkuntza-erakundeei laguntzea, irakasleentzako sentsibilizazio-, trebakuntza-, informazio- eta aholkularitza-ekimenak hobetzeko eta areagotzeko, drogen erabilera prebenitzeko eginkizunetan esku har dezaten, laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Beste helburu hau ere badu estrategiak: zehazki jakitea zenbaterainoko arazoa den enpresentzat substantzia-kontsumoa, horri buruzko zenbait jarduera proposatzeko.

Adingabeei eta alkoholari buruzko programa

Helburu hauek ditu programak: erakunde publikoen jarduera areagotzea adingabeen alkohol-kontsumoari aurre egiteko; alkohola edaten hasten diren adingabeen kopurua gutxitzea eta edaten hasteko adina atzeratzea; gehiegizko kontsumoak eta kontsumo arriskutsuak murriztea; gazteen parte-hartzea areagotzea beren osasunaren inguruko politiketan, eta gazteek alkohola edateko jasaten duten presioa gutxitzea, batik bat alkoholaren sustapena, babesletza eta eskuragarritasuna.

"Euskadi tabako-kerik gabe" estrategia

Estrategiaren xedea: tabako-kontsumoaren prebalentzia gutxitzea, tabakismoaren prebentzioa bultzatuz eta erretzaileei tabakoa uzten lagunduz.

Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Plana

Hirujarduera-eremu hauen inguruan dago egituratuta Ermuko Gizarte Zerbitzuen saila: eremu soziolaborala, eremu soziosanitarioa eta eremu sozioedukatiboa.

Eremu sozioedukatiboaren helburua hau da: arrisku-egoerak eta gizarte-bazterkeria prebenitzea eta ezabatzea adingabeen eta nerabeen artean, hezkuntza-komunitatearen baliabide- eta zerbitzu-sarearen lan koordinatuz baliatuta. Hezkuntza-komunitateko kideen artean adikzioak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko programak bultzatzea ere proposatzen du.

- Droga-mendekotasuna prebenitzeko jarduerak antolatzea hezkuntza-komunitatean.
- Ikastetxeei aholku ematea, laguntzea eta bitartekari-lana egiteaikasleen artean arrisku-egoerarik edo gizarte-bazterkeriarik ez sortzeko.
- Gurasoei trebakuntza ematea adingabeen garapen sozioedukatiboari buruz.

Eremu soziosanitarioaren helburua hau da: bazterkeria sozialeko egoeren prebentzioa mendekotasun eta/edodesgaitasunen bat dutenen eta/edo 65 urtetik gorakoen artean. Horrez gain, adikzioak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko programak ere proposatzen dira.

- Droga-mendekotasunen eta kontsumo desegokiaren prebentzio komunitarioko programak.
- Droga-mendekoen tratamendu eta errehabilitaziorako programak.

Ermuko III. Berdintasun Plana

Indarrean dagoen Berdintasun Planaren zenbait atalek adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena zeharka bultzatzea dute xede:

- Genero-ikuspegia txertatzea osasunerako kaltegarriak diren substantzien prebentzioari eta erabilera arduratsuari buruz egin behar diren kanpaina eta programen garapenean eta diseinuan (ikastetxeak, lehen mailako arretako zentroak).
- Genero eta droga-mendekotasunen alorretako adituez baliatzea herritar ororentzako droga-mendekotasun programa, jardunaldi, topaketa eta mintegietan.
- Teknikariei aukera ematea trebakuntza jaso dezaten droga-mendekoen egoeraz eta premiez, bai eta genero-ikuspegitik egoera horiek prebenitzeko moduez ere.
- Ikastetxeei laguntza eskaintzea genero-ikuspegitik informazio- eta prebentzio-kanpainak gara ditzaten (ohitura osasungarriak izatearen garrantzia...).
- Gizon eta emakume drogazaleen kontsumo-bereizgarrietara egokitzea arreta- eta prebentzio-programa orokorrak.

3. Diagnostikoa eta ekarpenak

Adikzioei buruzko Ermuko Udalaren Plana prestatzeko, interesgarria iruditu zaigu alde zureko diagnostikoa burutzea, zenbait eragilek egin zitzaizkizuten ekarpenak oinarri hartuta: ikasle eta irakasleek, herritarrek, udaleko hainbat sail eta ataletako langileek...

3.1. Eskolaren diagnostikoa


Herriko eskoletako ikasleen egungo egoera ezagutzeko, galdetegi bat prestatu da, **jakiteko zer prebalentzia duen zenbait substantziaren kontsumoak herriko gazteen eta nerabeen artean, eta kontsumoetan hautemandako arriskuak ezagutzeko** (legezko zein legez kanpoko drogen kontsumoaren errealitatea, substantzia horien noizean behingo kontsumoak eta ohikoak eragiten duten arriskuaren pertzepzioa, droga horiek eskuratzeko erraztasuna, drogei buruz gazteek eta nerabeek duten informazio-maila, familiako beste norbaitek kontsumitzen duen...).

Diagnostiko hori egiteko lagina: DBH, Batxilergoa eta Oinarrizko Hezkuntza ikasten duten 202 ikasle gazte eta nerabe. Taula honetan dago lagineko emaitzen ikastetxeakako banaketa:

	Maiztasuna	%
OLH Ermua Mallabia	33	16,3
San Pelayo ikastetxea	79	39,1
Ermuko BHI	90	44,6
GUZTIRA	202	100,0

Galdetegian parte hartu dutenen generoari dagokionez, % 55,4 gizonak ziren eta % 44,6 emakumeak (1. irudia):

1. irudia: Laginaren banaketa, generoaren arabera



Laginean parte hartu dutenean adinari dagokionez, hona hemen banaketa:

1. taula. Laginaren banaketa, adinaren arabera

Adina	Maiztasuna	%
15 urte	61	% 30,2
16 urte	64	% 31,7
17 urte	58	% 28,7
18 urte	47	% 8,4
19 urte	1	% 0,5
20 urte	1	% 0,5
GUZTIRA	202	100,0

Ohartuko zinetenez, diagnostiko honetarako interesgarriak zaizkigun adin-tarteetakoak dira gehienak, hots, 15 eta 17 urte bitartekoak (% 90,6).

Ikasketei dagokienez, DBHkoak dira ikasle gehienak, % 59,4.

2. taula. Laginaren banaketa, ikasketen arabera

Ikasketak	Maiztasuna	%
DBH 4	120	% 59,4
OLH 1	33	% 16,3
Batxilergoa 1	20	% 9,9
Batxilergoa 2	29	% 14,4
GUZTIRA	202	100,0

Ondoren, alderdi hauek aztertuko ditugu: substantzien kontsumoari buruz galdetegiaren atal bakoitzean jasotako emaitzak, substantziei horiei buruzko pertzepzioa, zenbateraino dauden eskuragarri eta abar.

Tabakoaren kontsumoari dagokionez


Funtsezkoa deritzogu Ermuko ikasleen tabako-kontsumoa berariaz aztertzeari, datu objektiboa baita nerabezaroan ekin ohi zaiela kontsumoei.

Substantzia horren kontsumoaren prebalentziak galdetuta (inoiz erre duten edo ez duten erre), **Ermuko ikasleen erdiek diote ez dutela sekula tabakorik erre** (EAEEn, gazteen % 74k diote hori, 2012ko "Drogak eta eskola"VIII. azterketaren arabera), % 25,7k inoiz erre duela diote, % 7,4k azken hilabeteen eta % 15,8k egunero (2. irudia).



2. irudia

Tabako-kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean



Eguneroko kontsumoari buruzko Ermuko ikasleen datuak alderatuz gero, ikusten da "Drogak eta eskola" VIII. azterketakoen (2012) ia berdinak direla, baina ESTUDES azterketakoak baino okerragoak (2012-2014):

Maiztasuna	Drogak eta eskola VIII (2012)	ESTUDES (2014)	Ermuko ikasleak (2017)
Eguneroko kontsumoa	% 15,9	% 8,9	% 15,8

Kontsumitzaileen adina eta haien tabako-kontsumoak kontuan hartuz gero, ikusten da badagoela lotura estatistikoa haien artean (3. taula). Aipatzeko modukoa da 19 eta 20 urte arteko ikasleen % 100ek kontsumitu duela tabakoa inoiz, baina ez dago adin-tarte horretako inor egunero erretzen duela dioenik. Tabako gehien kontsumitzen dutenak 18 urtekoak dira (haietatik % 35,3k, egunero).

3. taula

Tabako-kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean, adin-tarteka

	MAIZTASUNA			
ADINA	Inoiz ez	Inoiz edo behin	Azken hilean	Egunero
15 urte	% 54,1	% 29,5	% 6,6	% 9,8
16 urte	% 51,6	% 26,6	% 9,4	% 12,5
17 urte	% 56,9	% 15,5	% 6,9	% 20,7
18 urte	% 23,5	% 35,3	% 5,9	% 35,3
19 urte	% 0,0	% 100,0	% 0,0	% 0,0
20 urte	% 0,0	% 100,0	% 0,0	% 0,0

Tabakoaren kontsumoa eta balizko genero-aldeak aztertzean, oso antzekoak dira Ermuko mutil eta neska gazteen kontsumoak eta "Drogak eta eskola" VIII. azterketan (2012) ageri direnak.


Txosten horretan ageri zenez, neska erretzaileen portzentajea mutil erretzaileena baino handixeagoa zen, eta gauza bera dio Ermuko ikasleei buruzko azterketak. Ermuko ikasleen artean, emakumeen puntuazioa altuagoa da kasu guztietan, "egunero erretzen" dutenen atalean izan ezik.

"Noizbait" itemean jasotako emaitzetan dago alderik handiena: nesken % 32,2k diote noizbait tabakoa kontsumitu dutela. Azpimarratzeko moduko beste datu bat, hau: gehiago dira inoiz tabakorik probatu ez duten mutilak neskak baino.

Laburbilduz, ia erabat desagertu da garai batean tabako-kontsumoan gizonen eta emakumeen artean zegoen aldea, eta nahiko antzekoak dira gaur egun batzuen eta besteen kontsumo-portzentajeak.

3. irudia


Tabako-kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean, sexuaren arabera



Irudi honetan (4.irudia) jaso dira Ermuko gazteen iritziak tabakoa erosteko dauden erraztasunei eta zailtasunei buruz. Ez dirudi tabakoa erosteko arazorik dagoenik gaur egun, eta hala zioten "Estudes 2014" (% 90,8) eta "Drogak eta eskola"(2006) VII. azterketak ere (% 71,6). Datu horiek ikusirik, hau ondorioztatzen da: Ermuko gazteek beste herri batzuetakoek baino arazo gutxiago hautematen dutela tabakoa erosteko.

4. irudia

Tabakoa erosteko Ermuko ikasleek dituzten zailtasunak



Etxe barruko tabako-kontsumoaren azterketak dioskunez, berriz, Ermuko ikasleen etxeen erdietan baino gehiagotan kontsumitu ohi da tabakoa. "Drogak eta eskola" VIII. txostenean jasotako portzentajearen bikoitza da hori (4. taula).

Ezkortasun-kutsu bat dakarte datu horiek, gazteen artean tabako-kontsumoa prebenitzeko zer ekintza proposatu aztertzean, familia baita pertsonengan eraginik handiena duten taldeetako bat, eta Ermuko familien erdietan tabakoa kontsumitzen da.

4. taula


Ermuko etxe barruko tabako-kontsumoaren alderaketa: 2012an eta gaur egun

ETXEKO KONTSUMOA	2012 ("Drogak eta eskola" VIII. txostena)	2017 (Ermua)
Bai	% 23,9	% 51,5
Ez	% 67,4	% 48,5
Ez daki/Ez du erantzun	% 5	% 0

Gainera, elkarrekin lotura estua dute, Ermuan, familia-giroko kontsumoak eta gazteen kontsumoak, taula honetan ikusiko duzuen bezala. Erretzeko probabilitate handiagoa du bere etxean tabakoa erretzen den jendeak (5. irudia).

5. irudia

Ermuko etxeko kontsumoaren eta ikasleen kontsumoaren arteko lotura




Tabakoaren aldian behingo edo ohiko kontsumoak dakarren arriskuaren pertzepzioaz galdetuta, gehienek (% 68,3) diote arrisku handia dakarrela ohiko kontsumoak; kontsumoaren maiztasuna murriztu ahala, berriz, jaitsi egiten da arriskuaren pertzepzioa ere. Ermuko ikasleen % 31,2aren iritziz, ez dakar inolako arriskurik noizean behin tabakoa kontsumitzeak.

Azpirarratzeko moduko datu bat: ikasleen erdiek baino gehiagok (% 58,4) uste dute ez dakarrela arrisku handirik noizean behin tabakoa kontsumitzeak. Eta gauza jakina da zenbat eta arriskutsuagotzat jo substantzia bat orduan eta txikiagoa izaten dela haren kontsumoaren prebalentzia.

6. irudia

Tabakoa kontsumitzearen arriskuaz Ermuko ikasleek duten pertzepzioa



Laburbilduz, elkarrekin lotura estua dute tabako-kontsumoak eta arriskuaren pertzepzioak (5. eta 6. taulak): arrisku-pertzepzioak behera egin ahala, kontsumoak gora egiten du, egunero erretzen dutenen kasuan izan ezik, zeinen ustez arriskutsuagoa baita aldian behingo eta ohiko kontsumoa azken hilean inoiz erre dutela dioten ustez baino.

Datu horiek adierazten dutenez, igo egin da, azken urteotan, tabakoaren gaineko arrisku-pertzepzioa. Gure ustez, Tabakoaren Aurkako Legea onartu eta aplikatu izanaren zuzeneko ondorioa da igoera hori.

5. taula
Noizean behingo tabako-kontsumoaren eta Ermuko ikasleen arrisku-pertzepzioaren arteko lotura

	Batere arriskurik ez	Arrisku ertaina	
Inoiz ez	% 18,4	% 68,0	% 13,6
Inoiz	% 51,0	% 47,1	% 2,0
Azken hilean	% 28,6	% 64,3	% 7,1
Egunero	% 45,2	% 48,4	% 6,5

6. taula
Ohiko tabako-kontsumoaren eta Ermuko ikasleen arrisku-pertzepzioaren arteko lotura

	Batere arriskurik ez	Arrisku ertaina	Oso arriskutsua
Inoiz ez	% 2,0	% 15,7	% 82,4
Inoiz	% 6,0	% 32,0	% 62,0
Azken hilean	% 0,0	% 40,0	% 60,0
Egunero	% 6,3	% 50,0	% 43,8


Alkoholaren kontsumoari dagokionez

Ermuko ikasleen alkohol-kontsumoari buruzko datuak aztertuta, ikusten da portzentaje oso handi batek probatu duela edari alkoholikoren bat azken hilean (% 43,1); % 34,7k, berriz, inoiz alkohola edan duela diote. Ikasleen % 22k, bestalde, abstemioak direla diote.

7. irudia.



Alkohol-kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean



Ermuko emaitzek adierazten dutenez, duela bost urte EAEn jasotako portzentajeen antzekoak dira herri horretako portzentajeak (ikusi 7. taula). EAEn, apur bat behera egin dute abstinentzia-portzentajeek 2012koekin alderatuta. Alkohola kontsumitu dutela diotenei dagokienez, berriz, EAEko eta 2014ko ESTUDES azterketako datuen antzekoak dira ehunekoak (% 78,9).

7. taula

Alderaketa: 2012ko EAEko alkohol-kontsumoaren prebalentziaren eta Ermuko ikasleen gaur egungoaren artekoa

PREBALENTZIA	2012	2017 (Ermua)
Inoiz ez	% 26,2	% 22
Bai	% 73	% 77,8
ED(E)	% 0,8	% 0,5

Adina aintzat hartuz gero, zenbat eta helduagoa jendea, orduan eta handiagoa alkohol-kontsumoa.

Hamabost urte betetzerako, Ermuko ikasleen % 42,6k edan dute alkohola, maiztasun handiagoz edo txikiagoz.

Hamasei eta hemezortzi urte bitarteko ikasleei dagokienez, berriz, gehien-gehienek kontsumitu dute alkohola. Adinez nagusien artean, azkenik, batek berak ere ez dio abstentioa denik. Hala ere, azpimarratzekoa da inork ez duela alkoholik kontsumitzen egunero edo maiztasun handiz (8. taula).

Herritarren adina eta alkohol-kontsumoak aztertuta, ikusten da azterketen emaitzak errepikatu egiten direla 2017an Ermuko gazteen artean: 15-16 urte bitartean hasten

dira alkohola edaten nerabe gehienak, eta 18 urterako hasten dira ordura arte sekula edan gabekoak.


8. taula
Alkohol-kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean, adin-tarteka

ADINA	MAIZTASUNA			
	Inoiz ez	Inoiz	Azken hilean	Egunero
15 urte	% 21,3	% 42,6	% 36,1	% 0,0
16 urte	% 25,4	% 30,2	% 44,4	% 0,0
17 urte	% 22,4	% 39,7	% 37,9	% 0,0
18 urte	% 11,8	% 11,8	% 76,5	% 0,0
19 urte	% 0,0	% 0,0	% 100,0	% 0,0
20 urte	% 0,0	% 0,0	% 100,0	% 0,0

Sexuari dagokionez, mutilen eta nesken alkohol-kontsumoa berdintsua bihurtu zen, tabakoarena bezala, "Drogak eta eskola" VIII. txostenak (2012) zioenez.

2017an, oso antzekoa zen alkoholaren kontsumoa Ermuko neska ikasleen eta mutil ikasleen artean (8. irudia). Aztertutako kasu askotan, Ermuko laginean handiagoak ziren nesken alkohol-kontsumoak mutilenak baino, eta ia erdira (% 46,7) iristen ziren azken hilean alkohola edan zutela zioten neskak.

8. irudia
Alkohol-kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean, sexuaren arabera




Irudi honetan (9. irudia) ageri dira Ermuko nerabeek alkohola erosteko dituzten zailtasunak eta erraztasunak.

Emaitzen azterketaren arabera, gehienek diote (% 94,6) eskuragarri dutela alkohola (tabakoa bezala), nahiz eta adingabeak izan.

9. irudia


Alkohola erosteko Ermuko ikasleek dituzten zailtasunak



Ermuko gazteen familietako alkohol-kontsumoari dagokionez, etxe gehienetan kontsumitzen da alkohola (10. irudia). Tabakoa baino gehiago kontsumitzen da alkohola.

10.irudia


Alkohol-kontsumoaren prebalentzia Ermuko familietan



Elkarrekin estu lotuta daude Ermuko familien alkohol-kontsumoa eta ikasleen alkohol-kontsumoa, beste substantzia batzuen bezala. Alkohola kontsumitzen den familietan, handiagoa da eskola-adinean dauden neska-mutikoek ere alkohola kontsumitzeko probabilitatea (11. irudia).

11. irudia

Ermuko familien etxe barruko alkohol-kontsumoaren eta ikasleen kontsumoaren arteko lotura




Alkohola noizean behin edo maiz edatearen arriskuen pertzepzioaren azterketak adierazten duenez, Ermuko ikasleen erdiek baino gehiagok (% 57,2) uste dute oso arriskutsua dela alkoholaren ohiko kontsumoa.

Alabaina, % 10,9k bakarrik uste dute noizean behin kontsumitzea oso arriskutsua dela; % 43,3k uste dute arrisku ertaina dakarrela noizean behin alkohola edateak, eta % 44,8k, berriz, ez dela batere arriskutsua.

Ohiko kontsumoari dagokionez, espero ziren emaitzak eman ditu azterketak: zenbat eta handiagoa arrisku-pertzepzioa, orduan eta txikiagoa kontsumoa (12. irudia).

12. irudia Alkohol-kontsumoaren arriskuaz Ermuko ikasleek duten pertzepzioa



9. irudia

Aldian behingo alkohol-kontsumoaren eta Ermuko ikasleen arrisku-pertzepzioaren arteko lotura

	Batere arriskurik ez	Arrisku ertaina	Oso arriskutsua
Inoiz ez	% 29,5	% 40,9	% 29,5
Inoiz behin edo	% 40,0	% 50,0	% 10
Azken hilean	% 57,6	% 40,0	% 2,4

10. taula

Ohiko alkohol-kontsumoaren eta Ermuko ikasleen arrisku-pertzepzioaren arteko lotura

	Batere arriskurik ez	Arrisku ertaina	Arrisku handia
Inoiz ez	%2,3	%20,5	%77,3
Inoiz behin edo	%4,5	%40,3	%55,2
Azken hilean	%7,0	%41,9	%51,2

Kalamuaren kontsumoari dagokionez


Alkohola eta tabakoa alde batera utzita, kalamua da Ermuko nerabeek gehien kontsumitzen duten legez kanpoko substantzia, EAEko beste udal askotakoek bezala (13. irudia).

Ikerketan parte hartu duten ikasleen % 41ek diote probatu edo kontsumitu dutela kalamua. Maiztasunari dagokionez, batzuek behin edo behin kontsumitu dute bizitza osoan; beste batzuek, aldiz, egunero kontsumitzen dute.


Lehenagoko beste azterketa batzuekin alderatuta, hau nabarmentzen da: 2006an gora egin zuen kalamuaren kontsumoak, baina oraingo datuak hurbilago dabilta 1996ko eta 2011ko inkesten emaitzetatik. Honenbestez, behera egin du kalamuaren kontsumoak azken hamar urteotan (14. irudia), nahiz eta Ermuko egungo kontsumoa EAEko 2012koa eta 1996koa baino handixeagoa den ("Drogak eta eskola" VIII. txostena).

13. irudia

Kalamuaren kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean



14. irudia Kalamuaren kontsumoaren bilakaera (1996-2016)



Kontsumoari buruz Ermuko ikasleen artean jasotako datuak beste ikerketa batzuetakoekin alderatuta, **"Drogak eta eskola VIII" (2012)** azterketakoak baino hobeak dira, eta **ESTUDES (2012-2014)** lanekoaren antzekoak, eguneroko kontsumoari dagokionez izan ezik:

	Inoiz	Azken hilean	Egunero
"Drogak eta eskola VIII" (2012)	% 42,4	% 24,3	% 8,7
ESTUDES (2014)	% 29,2	% 18,6	% 1,8
Ermuko ikasleak (2017)	% 25,2	% 10,4	% 5,4


Kalamuaren kontsumoa eta sexua aztertuta, berriz, aldeak nabari dira mutilen eta nesken kontsumoen artean.

Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoari dagokionez, murriztu egin dira bi sexuen arteko aldeak azken urteotan. Kalamuari dagokionez, aldiz, bere horretan dirau aldeak. 15. irudian ikusten denez, txikiagoa da kalamua kontsumitu duten emakumeen

kopurua gizonena baino, eta are handiagoa da alde hori kontsumoaren maiztasunak gora egin ahala.

Gizonezkoak dira kalamua azken hilean (% 57,1) eta egunero (% 81,8) erre dutela aitortu duten gehienak. Nesken artean kontsumitzaile gutxiago dago mutilen artean baino; bestalde, askoz ere txikiagoa da kalamu-kantitate handiak kontsumitzen dituzten emakumeen portzentajea, eta hala ondorioztatu zuen "Drogak eta eskola" VIII. txostenak (2012) ere. Honenbestez, kasu honetan sexua nolabaiteko "babes-faktorea" da kalamu-kontsumoarekiko.

15. irudia
Kalamu-kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean, sexuaren arabera



Adinaren eta kalamu-kontsumoaren artean ere atzematen da loturarik (11. taula). Izan ere, adina ere babes-faktorea da, antza, kalamu-kontsumoarekiko, hots, zenbat eta gazteagoa jendea, orduan eta txikiagoa kalamu-kontsumoa. Ikasle gazteenak dira kalamu gutxien kontsumitzen dutenak: 17 urtetik beherakoen % 60k diote ez dutela inoiz kontsumitu.

Aitzitik, adinean aurrera egin ahala gora egiten du substantzia hori probatzeko eta maiz kontsumitzeko probabilitatea, eta hala erakutsi zuen 2012ko "Drogak eta eskola" txostenak. Alkoholaren kasuan bezala, 18 urtetik aurrera hasten dira kontsumitzen ordura arte substantzia hori probatu ez zutenak.


11. taula
Kalamu-kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean, adinaren arabera

	MAIZTASUNA			
ADINA	Inoiz ez	Inoiz	Azken hilean	Egunero
15 urte	% 60,7	% 32,8	% 6,6	% 0,0
16 urte	% 61,9	% 19,0	% 12,7	% 6,3
17 urte	% 62,1	% 22,4	% 6,9	% 8,6
18 urte	% 35,3	% 35,3	% 17,6	% 11,8
19 urte	% 0,0	% 0,0	% 100,0	% 0,0
20 urte	% 0,0	% 0,0	% 100,0	% 0,0

Kalamua eskuratzeko erraztasunei edo zailtasunei dagokienez, Ermuko gazte gehienek (% 82,1) diote ez dutela oztopo handirik aurkitzen substantzia horretaz hornitzeko (16. irudia).

Nabarmentzekoa da arrisku-faktorea dela droga erraz eskuratzeko aukera haren kontsumoari ekiteko edo eusteko. Laburbilduz, kalamua da legez kanpoko substantzietatik errazen eskura daitekeena, legezko substantziak bezain erraz erosi ezin bada ere.

16. irudia
Ermuko ikasleek kalamua erosteko dituzten zailtasunak



Kalamua kontsumitzen duten Ermuko familia-kopuruari dagokionez, Ermuko gazteen etxean % 14an kontsumitzen da substantzia hori (12. taula). Bestalde, lotura estatistikoa dago kalamuaren etxeko kontsumoaren eta nerabeen kontsumoaren artean (13. taula), alkoholaren eta tabakoaren kontsumoan bezala.

12. taula
Kalamu-kontsumoaren prebalentzia Ermuko familietan

ETXEKO KONTSUMOA	2017
Bai	% 13,9
Ez	% 86,1

13. taula
Ermuko etxeiko kontsumoaren eta ikasleen kontsumoaren arteko lotura

	Bai	Ez
Inoiz ez	% 6,8	% 93,2
Inoiz behin edo	% 11,8	% 88,2
Azken hilean	% 38,1	% 61,9
Egunero	% 54,5	% 45,5

Kalamu-kontsumoaren arriskuaz dagoen pertzepzioa aztertuta, hau ondorioztatzen da: zenbat eta handiagoa kontsumitzen den kantitatea eta zenbat eta maizago kontsumitu, areagotu egiten da arriskuaren pertzepzioa.

Aldian behingo kontsumoei dagokienez, ia ikasleen erdiek (% 45,5) uste dute arrisku ertaina dakarrela kalamua egunero erretzeak. % 63,6ra igotzen da portzentajea ohiko kontsumoaz galdetuta.

Alabaina, % 9,1ek bakarrik uste dute oso arriskutsua dela kalamua egunero kontsumitzea (14. eta 15. taulak).

Ohiko kontsumoari dagokionez, joera bera nabari da, eta areagotu egiten da arriskuaren pertzepzioa. Arrisku-pertzepzioa gorabehera, ikasle-kopuru handi batek kontsumitzen du kalamua.

Hala eta guztiz ere, ikerketa askok diote jaitsi egin dela arrisku handikotzat ikusten diren substantzien kontsumoa. Beraz, funtsezkoa da substantzia baten kontsumoaren arriskuaz jendeak duen pertzepzioa aintzat hartzen jarraitzea.

14. taula
Noizean behingo kalamu-kontsumoaren eta Ermuko ikasleen arrisku-pertzepzioaren arteko lotura



	Batere arriskurik ez	Arrisku ertaina	Arrisku handia
Inoiz ez	%13,8	%42,2	%44,0
Inoiz behin edo	%36,7	%57,1	%6,1
Azken hilean	% 45,0	% 55,0	% 0,0
Egunero	% 54,5	% 45,5	% 0,0


15. taula
Kalamuaren ohiko kontsumoaren eta Ermuko ikasleen arrisku-pertzepzioaren arteko lotura

	Batere arriskurik ez	Arrisku ertaina	Arrisku handia
Inoiz ez	% 2,6	% 18,8	%78,6
Inoiz behin edo	% 6,1	% 34,7	% 59,2
Azken hilean	% 5,0	% 55,0	% 40,0
Egunero	% 27,3	%63,6	%9,1

Legez kanpoko gainerako drogen kontsumoari dagokionez

Azkenik, Ermuko ikasleek gehien kontsumitzen dituzten legez kanpoko gainerako substantziak aztertuta, hauek dira ondorioak: % 4,5ek anfetaminak kontsumitu dituzte noizbait, eta % 3,5ek, kokaina. Droga horien atzetik datoz lasaigarriak, zeinak % 2,5ek kontsumitu dituzten inoiz edo behin (17.irudia).

17. irudia
Beste droga batzuen kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean




Substantzia horien kontsumoa eta kontsumitzaileen sexua aztertuta, kalamuaren kontsumoan atzemandako alde berak ikusten dira, kasu honetan are handiagoak gainera.

Substantzia horietakoren bat inoiz edo behin kontsumitu dutela aitortzen dutenetatik, gizonek baietz erantzuten dute kasu guztietan. Emakumeek, berriz, substantzietako hiru probatu dituztela diote (18. irudia).

18. irudia

Legez kanpoko drogen inoiz edo behingo kontsumoaren prebalentzia Ermuko ikasleen artean, sexuaren arabera



Droga horiek eskuratzeko aukerari dagokionez, berriro ere berretsi egin da lehenago genioena: zenbat eta eskuragarriago, orduan eta handiagoa kontsumoa (16. taula). Kalamua alde batera utzita, hauek dira Ermuko ikasleek eskuragarrien dituzten legez kanpoko drogak: kokaina eta anfetaminak, hurrenkera horretan.

16. taula

Ermuan legez kanpoko drogak eskuratzeko aukera

ESKURAGARRITASUNA	Bai	Ez
LSD	% 26,7	% 73,3
Anfetaminak	% 43,6	% 56,4
Estasia	% 21,8	% 77,7
Kokaina	% 46,0	% 54,0
Lasaigarriak	% 38,1	% 61,9
Heroina	% 21,3	% 78,7
Inhalagarriak	% 35,6	% 64,4

Ermuko ikasleen familiei dagokienez, oso baxua da droga horien kontsumoa. Kalamuaren atzetik, lasaigarriak, anfetaminak eta kokaina kontsumitzen dituzte gehien ikasleen familiek (17. taula).

17. taula
Legez kanpoko drogen kontsumoaren prebalentzia Ermuko familietan

ETXEKO KONTSUMOA	Bai	Ez	EZ/EE
LSD	% 0,5	% 99,5	% 0,8
Anfetaminak	% 2,0	% 98,0	% 0,6
Estasia	% 0,0	% 99,5	% 0,5
Kokaina	% 1,5	% 98,0	% 0,5
Lasaigarriak	% 2,5	% 97,0	% 0,5
Heroina	% 0,5	% 99,0	% 0,5
Inhalagarriak	% 0,0	% 99,5	% 0,5


Substantziei buruzko informazioa

Ikasleek substantziei buruz duten informazioari dagokionez, nahikoa informatuta daudela diote (19. irudia).


Informazioa eskuratzeko gogokoen dituzten bideei buruz ere galdetu zaie ikasleei. Gehienek diote (% 79) ikasgelan bertan jaso nahi luketela informazio hori, eta atzetik datoz osasun-zerbitzuen bidez jaso nahi luketenak (% 55) (20. irudia).



19. irudia Drogei buruz Ermuko ikasleek duten informazioaren maila



20. irudia Zer bidetatik jaso nahi luketen drogei buruzko informazioa



Ondoriorik aipagarrienak

Ermuko zenbait ikastetxetan egindako inkesten datuak aztertuta, hainbat ondorio atera daitezke, galderei zegozkien eremuen arabera.

Ikasleen **KONTSUMOEI** dagokienez:

- Ermuko ikasleek gehien kontsumitzen dituzten drogak alkohola, tabakoa eta kalamua dira, hurrenkera horretan. EAEn ere droga horiek dira gehien kontsumitzen direnak.
- Tabakoari dagokionez, ikasleen erdiek baino gehiagok (% 51) diote ez dutela kontsumitzen; ia % 16k, aldiz, egunero kontsumitzen du. "Drogak eta eskola" VIII. azterketako portzentaje bera da (% 15,9).
- Alkoholaren kontsumoak, berriz, behera egin du duela hamar urtekoarekin alderatuta. Dena dela, kontuan izan behar da oso gazterik hasten direla ikasleak alkohola edaten. Hamabost urte betetzerako, Ermuko ikasleen % 42,6k probatua dute alkohola; hemezortzi betetzerako, berriz, galdetutako guztiek edan dute noizbait, ikaslek eurek aitortzen dutenez.
- Kalamuaren kontsumoa ere jaitsi egin da azken hamar urteotan, baina Ermuko ikasleen % 22,20k kontsumitu du inoiz edo behin; % 5,4k, berriz, egunero kontsumitzen du. Kontuan hartzeko modukoa da azken hori, azken ikerketen arabera kalamua luzaroan kontsumitzeak osasun mentaleko arazoak eragin baititzake.
- Legez kanpoko gainerako drogei dagokienez, anfetaminak eta kokaina dira, kalamuaren atzetik, Ermuko ikasleek gehien kontsumitzen dituztenak (% 45ek eta % 3,5ek, hurrenez hurren).
- Anfetaminen eta kokainaren atzetik, berriz, lasaigarriak kontsumitzen dira gehien. Familien kontsumo-zerrendan ere nahiko puntuazio altua du substantzia horrek..

Prebentzio-politikek ekinean jarraitu dute azken urteotan, kontsumo arduratsuaren beharra azpimarratuz eta kontsumoari lotutako arriskuak murrizten saiatuz. Beharbada politika horien emaitza da aipatutako substantzietako batzuen kontsumoa txikiagoa izatea gaur egun duela urte batzuetakoa baino.

Gaiari ekiteko modu hori dela eta, objektiboagoa eta gardenagoa da herritarrei iristen zaien informazioa. Beraz, funtsezkoa da prebentzio-politikak garatzen jarraitzea, are gehiago gutxitzeko kontsumitzaileen portzentajea, jakinik kontsumo goiztiarrak ondorio oso kaltegarriak eragiten dituela nerabeen organismoetan. Garbi dago bizitzaren lehen urteetatik heldu behar zaiola gaiari, alor guztietan gainera: maila indibidualean, familian, eskolan eta gizartean.

Horrez gain, garrantzi izugarria du bizitzarako gaitasunak lantzeak (autoestimua, autonomia, gatazka-konponketa, komunikazioa eta entzute aktiboa, enpatia eta emozioen kudeaketa), bizitzan zehar aurkituko ditugun zenbait egoerari aurre egiteko tresna egokiak izan ditzagun.

Substantzien kontsumoaren gaiari ekiteko, **GENEROA** dugu funtsezko alderdietako bat. Beste ikerketa batzuek bezala, Ermukoak ere joera berak erakusten ditu kontsumoari eta generoari dagokienez:

- Tabakoari dagokionez, emakumeen eta gizonen kontsumo-mailak oso antzekoak direla diote azterketek. Ermuan ere ikusten da joera hori eta, gainera, neskak mutilen gainetik daude kontsumo guztietan, egunerokoan izan ezik, non mutilak nesken aurretik baitaude.
- Antzekoa da egoera alkoholari dagokionez. Duela hogeit bat urtera arte, handiagoak ziren nesken abstinentsia-portzentajeak, baina azken hamar urteotan oso antzekoak dira nesken eta mutilen kontsumo-mailak. Ermuan, aurretik daude mutilak noizean behingo kontsumoan (% 37,8); neskak, berriz, azken hileko kontsumoan (% 46,7). Ondorioztatzen da, beraz, hor ere antzeko joera ari dela hartzen nesken eta mutilen portaera.
- Legez kanpoko drogei dagokienez, berriz, erabat aldatzen da egoera. Kasu guztietan (kalamua ere barne dela), gehiago kontsumitzen dute mutilek. Anfetamina- eta kokaina-kontsumoan, are handiagoa da mutilen eta nesken arteko aldea.
- Horregatik, ondorioztatzen da droga-kontsumoaren aurkako babes-faktore bat dela generoa, batez ere legez kanpoko drogei dagokienez.

Kontuan izan beharreko beste faktore bat: substantzia bat eskuratzeko **ZAILTASUN-MAILA**. Herritar gehienentzat debekatuta dauden arren substantzia guztiak, legezkoak edo legez kanpokoak izan, ez du ematen oso zaila denik haiek eskuratzea. Ondorioztatzen da, beraz, ez dagoela arazo handirik legezko drogak eta kalamua eskuratzeko.

- Egun, badirudi kasu batzuetan zailagoa dutela adingabeek tabakoa erostea. Seguru asko, leku publikoetan tabakoa erretzeko debekuak eta tabako-salmentaren kontrolak lotura estua dute emaitza horiekin.
- Alkoholaren eskuragarritasunari dagokionez, tabakoarenaren parekoa da. Ez dago arazo handirik ez alkohola erosteko, ez ostalaritzako lokaletan kontsumitzeko. Aldiz, badirudi adingabeek oztopoak izaten dituztela dendetan alkohola erosteko, normalean NANA eskatzen baitzaie.
- Legez kanpoko substantzietatik, berriz, kalamua da errazen eskura daitekeena, legezkoak erostea baino zailxeagoa bada ere. Atzetik datoz kokaina eta anfetaminak.

Substantzia horiek duten **ARRISKUAREN PERTZEPZIOARI** dagokionez, berriz, arrisku-pertzepzio handia egotea kontsumoaren aurkako babes-faktoretzat jotzen dute zenbait ikerketaren emaitzek.

Substantzien ohiko edo aldian behingo kontsumoaren ondorioez informazioa edukitzeak, bestalde, areagotu egiten du arrisku-pertzepzioa; beraz, informazioa ere kontsumoaren aurkako babes-faktorea da.

- Tabakoaren kasuan, badirudi ohiko erretzaileak gehiago ohartzen direla erretzeren arriskuez aldian behin erretzen dutenak baino. Emaitzat aztertuta, hau

ondorioztatzen da: gehienek uste dute tabakoaren ohiko kontsumoak arrisku ertaina edo handia dakarrela berekin.

- Aldiz, asko jaisten da arrisku-pertzepzioaren maila alkoholaren kontsumoari dagokionez. Erdiek baino gehiagok (% 57,6) uste dute apenas dakarrela arriskurik azken hilean inoiz edo behin edan izanak; ohiko kontsumoaren kasuan, % 7 da portzentajea. Joera hori alderantzizkoa da arrisku handien kasuan: % 2,4k uste du oso arriskutsua dela azken hilean inoiz edo behin edan izana, eta % 52,1ek oso arriskutsua dela maiz edatea.
- Kalamuari dagokionez, zabalduago dago arrisku-pertzepzioa. Ermuko ikasleen iritziz, aldian behin kalamua kontsumitzeak arriskuak dakartza (ertainak edo handiak). Are handiagoa da arrisku-pertzepzio hori kalamurik kontsumitzen ez dutenen artean (% 44), eta askoz ere handiagoa kontsumoa ohiko baldin bada, batez ere kalamu-kontsumitzaile ez direnen artean (% 8,6). Arrisku-pertzepzioari buruzko datuak gorabehera, ikasle askok kontsumitzen dute kalamua.

Gaiari buruzko **EZAGUTZARI** dagokionez, berriz, ohikoa da gazteek pentsatzea informazio asko dutela, baina ez dute eurek uste bezainbat izaten. Batzuetan, kalamuaren kontsumoa justifikatzeko eta errudun-ustea eta erantzukizuna baretzeko izan ohi dira erabiltzen dituzten arrazoiak.

Ikerketan esku hartu duten ikasle gehienek (% 93) uste dute ondo informatuta daudela. Informazioa bilatzeko erabiltzen dituzten iturriez galdetuta, hezkuntza-alorreko tailerrak jartzen dituzte lehen postuan, eta, jarraian, osasun-arloko eragileek trebakuntza-saioak.

Informazio objektiboa, egiazkoa eta kalitatekoa edukitzeak lagundu egiten du substantzien kontsumoak dakarren arriskuaren pertzepzioa handitzen eta, horrenbestez, arriskuari hobeto aurre egiten.

Azkenik, **FAMILIAREN KONTSUMOARI** buruz galdetuta, hauek dira erantzunak:

- Ermuko ikasleen etxeen erdietan baino gehiagotan (% 51,5) erre egiten da. Hori dela eta, ezin baikortasun handiz ekin gazteen artean tabako-kontsumoa prebenitzeari, familia-ereduek babes-faktore gisara jarduten baitute.
- Gauza bera gertatzen da alkoholaren kontsumoarekin, eta tabakoaren kontsumoak baino puntuazio handiagoak ematen ditu alkoholarenak. Gure gizartean alkoholaren kontsumoa oso normalizatuta dagoenez, familien kontsumoa ere dezente handia da: Ermuko ikasleen familien % 67,5etan edaten da alkohola.
- Legez kanpoko drogetatik, berriz, kalamua da Ermuko familiek gehien kontsumitzen dutena, euskal gizarte osoak bezala. Ikerketan parte hartu duten ikasleen % 13,9k diote beren familiako kideren baten kalamua kontsumitzen duela.
- Horren atzetik datoz lasaigarriak, anfetaminak eta kokaina, baina askoz txikiagoak dira substantzia horiek kontsumitzen dituztenen portzentajeak.

3.2. Herritarren eta udal-sail eta -baliabideen ekarpenak

Herriko zenbait jenderen ekarpenei esker egin da Plan hau, eta guztien lekukotasunak izan dira garrantzizkoak.

Udalaren sailetako teknikariak, hezkuntza- eta osasun-alorretako langileak, kirol- eta kultura-elkarteetako kideak eta, noski, Ermuko herritarrak izan ditugu laguntzaile. Guztira, 275 lagunek hartu dute parte.

Diagnostikoa egiteko tresnak, berriz, elkarrizketa egituratuak eta telefono bidezkoak izan dira. Haien bidez jakin da zer pertzepzio duten herritarrek beren udalerriko adikzioez, kontsumoez eta jokabide arriskutsuez, zer dakiten gai horien inguruan bultzatzen diren ekimenez, zer premia ikusten dituzten eta zer proposamen egiten dituzten.

Sistematizatu egin dira iritzi, ekarpen eta proposamen guztiak, eta hemen jasota daude.

Adikzioei buruzko aurreko planaren ezagutzari dagokionez

Jasotako erantzunen arabera, jende gutxi daki zer egiten den Ermuko udalerrian adikzioak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko.

Batez ere hezkuntza-alorrean egiten diren jarduerak izaten dute oihartzun zabala. Ikastetxeetatik diotenez, udalarekin estuki koordinatuta jardun ohi dira prebentzio-programak martxan jartzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko.

Besteak beste, "Arriskua: alkohola" programa, HIESaren aurkako Mundu Eguna dela-eta gaitz horretaz antolatzen diren sentsibilizazio-kanpaina eta elikadura eta ohitura osasungarriei buruzko trebakuntza-programa egiten dira ikastetxeetan.

Festetan antolatzen diren zenbait ekintza ere ezagunak dira; adibidez, Santiagoetan egiten diren alkoholemia-kontrol prebentiboak, aurkezpen-eguneko mezudunmaterialen banaketa (edalontziak, motxilak, betaurrekoak...).

Adikzioei buruzko aurreko plana ezagutzen dutenek diote eragin eskasa izan zuela eta han jasotako ekintzak ez direla behar bezala garatu.

Alkoholaren kontsumoari dagokionez

Elkarriketetan eta telefono bidezko zundaketen bidez jasotako iritzia aztertuta, denek diote alkohola dela Ermuan gehien kontsumitzen den substantzia, kalean eta talde guztietan presentziarik handiena duena.

Goiz hasten da alkohola kontsumitzen jendea, 13 eta 15 urte dituela. Herritar askok data seinalatu batzuetan ekiten diote kontsumoari: Santiagoetan, Elektro Jaian, DíadasLetrasGalegasegunean...

Alkohola gure ohituretan oso sustraituta dagoela irizten diote gehienek, eta aisialdiari eta festari atxikitako harreman-mota garrantzitsu bat dela. Neska eta mutiko askok normaltasun osoz ikusten eta bizitzen dute alkoholaren kontsumoa, beren erreferentzia-figurak ere alkoholaz baliatzen baitira aisialdiaz gozatzeko (pintxo-potea, asteburuko basoerdiak eta abar). Inkestatuen iritziz, ez gara ohartzen igortzen ditugun mezuez; izan ere, jokabide asko imitazioz ikasten dira eta oso erraza da horrelako ohiturak kopiatzea.

Halaber, diote gazteek eta nerabeek ez dutela aurkitzen oztopo handirik alkohola erosteko, eta areagotu egin beharko litzatekeela kontrola, inoiz lokaletan petardo eta suziriekin egin izan den bezala.

Kaleko zurrutari, botiloari dagokionez, ikusten da Ermuan, baina normalean gazteen lokaletan; egun berezietan, berriz, Okinzuri parkean, Aldapa kalean eta Aritzmendi frontoian ere bai.

Elkarriketatutako osasun-alorreko langileek diotenez, normalean jendea ez da kontsultara laguntza eske joaten alkoholarekiko mendekotasuna duela eta; beste osasun-konturen batzuek argitaratu ohi dute arazoa, edo senideren bat joan ohi da kontsultara, kezkatuta. Diote, halaber, askoz ere ohikoagoa dela gizonek gehiegi edatea, eta emakumeen gehiegizko kontsumoa ezkutatu edo ukatu egiten dela. Ohikoa da emakumeek ezkutuan edatea, edo bakarrik daudela, gizarteak begi okerragoz ikusten baititu emakume edaleak gizon edaleak baino.

Osasun-arloan, berriz, gaur egun duela urte batzuk baino arazo gutxiago dagoela diote inkestatuek, batez ere heroina puri-purian zegoen garaiarekin alderatuz gero.

Adinaren eta alkohol-kontsumoaren arteko zuzeneko lotura dagola ere badiote: zenbat eta helduagoa jendea, orduan eta arazo gehiago alkohol-kontsumoarekin.

Kalamuaren kontsumoari dagokionez

Kalamua da, legez kanpoko substantzietatik, gehien kontsumitzen dena eta Ermuko herritarren artean kezkarik handiena sortzen duena, batez ere aurreratu egin delako jendea substantzia hori kontsumitzen hasten den adina.

Alkoholaren kontsumoarekiko gizarteak duen tolerantzia eta permisibitatea kalamuaren kontsumoarekiko ere nabaritzen du gizarteak. Gazteen artean, berriz, tabakoa kontsumitzea baino normalagozat jotzen da kalamua kontsumitzea. Galdeketari erantzun dioten ia denek esan dute kezkatuta daudela substantzia hori normaltasun osoz kontsumitzen delako kalean, edonon eta edozein ordutan. Diote, halaber, azken urteotan gehiago ikusten dela kalean kalamua kontsumitzen, baita parke eta ikastetxeetatik hurbil ere.

Azkenaldian kontsumo handia ikusten den lekuetako bat udal-liburutegirako sarrera da. Adin guztietako jendeak erabili ohi du liburutegia; arratsalde, berriz, neska-mutikoek, jende heldua lagun dutela. Liburutegiaren erabiltzaileak eraikin horren atean kalamua kontsumitzen ikusteak kezkatu egiten du jendea, batez ere udal-zerbitzu horretako arduradunak.

Ostalaritzako lokaletan dagoen permisibitatea ere aipatzen dute inkestatuek; izan ere, terrazetan kalamua erretzen uzten dute lokaletako jabeek, gaiari buruzko legedia ezagutzen ez dutelako edo jaramonik egiten ez diotelako.

Bestalde, gazteen lokal asko dago Ermuan, eta elkarrizketa gehienetan aipatzen da lokal horiek direla kalamu gehien kontsumitzen diren lekuetako batzuk, bai eta, seguru aski, substantzia horren saltoki ere.

Gazteak eta nerabeak dira kalamu-kontsumitzaile ohikoenak, baina beste adin batzuetako jendeak ere kontsumitzen du.

Askoren iritziz, kalamuaren kontsumoa "herentzia" moduko bat zenbait familiatan, hau da, gurasoen belaunaldiak erretzen bazuen seme-alabenak erretzea ere ez da harritzekoa izaten. Ez da arraroa, beraz, familia horietan tolerantzia handiagoa izatea horrelako jokabideekiko.

Immigrazio-sailetik adierazi digutenez, bestalde, zenbait gazte langabek haxixa saltzen dute, dirua erraz eta azkar eskuratzeko.

Hezkuntza-komunitateak (ikastetxeak eta ikasleen guraso-elkarteak), berriz, uste du ikasleek ez diotela beldurrik kalamuari, eta kezagarritzat jotzen dute ikastorduetan ikastetxeetatik gertu kontsumitzea, adingabeen aurrean.

Oro har, inkestatuek diote nerabeekin jorratu behar dela kalamuaren kontsumoaren gaia, eta gehiegizko kontsumoaren ondorioen berri behintzat izan behar dutela, kalamuaren kontsumoaren arriskuak kudea ditzaten.

Garrantzizkoa deritzote, halaber, gizarteak gogoeta egiteari kalamuaren kontsumoaz dagoen normaltasun-pertzepzioa dela eta.

Aipatzen dute, azkenik, poliziaren kontrol handiagoa behar dela, adingabeen artean kalamuaren kontsumoa, salmenta eta txikizkako salerosketa saihesteko.

Tabakoaren kontsumoari dagokionez

Tabakoa da gehien kontsumitzen den beste drogetako bat, inkestatuen iritiz; dena dela, askok diote Tabakoaren aurkako Legea dela-eta behera egin duela erretzaileen kopuruak, ostalaritzako lokaletan eta beste zenbait lekutan erretzeko debekuagatik.

Alabaina, beste hau ere badiote: debekua gorabehera, geroz eta ohikoagoa dela taberna batzuetan tabakoa kontsumitzen uztea ordu jakin batzuetatik aurrera.

Nolanahi dela ere, tabakoaren kontsumoaren inguruan azken urteotan egindako sensibilizazio-kanpainak eragin handia izan dute gizartean, eta kontzientzia soziala sortu da haren kontsumoak dakartzan kalteei buruz.

Osasun-alorreko langileek diotenez, berriz, herritar askok hartu dute parte azken urteotan tabakoa erretzeari uzteko tratamenduetan. Normalean, tabakoarekiko mendekotasuna uzteko bi talde antolatzen dira urtean; kasu batzuetan, banakako arretarik ere egin ohi da. Prozesua amaitzean, jarraipena egiten da, urtebetez. Eraitza oso positiboak lortzen dituzte tratamendu horietan jardun diren gehienek. Gizonezkoek gehiago jotzen dute zerbitzu horietara emakumeek baino, batez ere 50 urtetik gorakoek. Laburbilduz, adikzioei buruzko ekintza-plan baten arabera hartu behar dira neurri horiek guztiak.

Legez kanpoko beste droga batzuen kontsumoari dagokionez

Legez kanpoko gainerako drogei dagokienez, elkarriketatuek diote anfetaminak eta kokaina kontsumitzen direla gehien, baina kontsumoa ez dela oso handia. Batzuek aipatu duenez, berriz, nahiko ohikoa ari da bihurtzen substantzia horien kontsumoa adinean aurrera doan zenbait herritarren artean asteburuetan, festetan eta egun seinalatuetan. Kontsumoa normalizatzen ari dela uste dute askok, batez ere kokainarena.

Osasun- eta berdintasun-saileko langileek, berriz, psikofarmakoen kontsumoa aipatu dute. Diotenez, batez ere emakumeek kontsumitzen dituzte substantzia horiek, zenbait arazo eta egoera gatazkatsuri ihes egiteko bide azkar gisara.

Substantzien kontsumoaren eta generoaren arteko lotura

Galdetegiari erantzun dioten gehienek ez dute alde handirik sumatzen gizonen eta emakumeen artean legezko drogen kontsumoari dagokionez (alkohola eta tabakoa), eta azken urteotan neskak mutilen parean jarri omen dira bi substantzia horien kontsumoan.

Legez kanpoko drogen kontsumoan, aldiz, gizonezkoek gehiago kontsumitzen dituztela diote, batez ere kalamua. Halaber, diote ohikoagoak eta larriagoak direla gizonen artean substantzia horien kontsumoak eragiten dituen arazoak (osasunekoak, legalak eta ekonomikoak).

Osasun-arloko langileek diotenez, zailagoa izan ohi da emakumeen artean substantzien gehiegizko kontsumorik atzematea, bakarrik daudela eta ezkutuan kontsumitzen baitituzte. Hor dago, adibidez, psikofarmakoen kasua, zeinak emakumeek gehiago kontsumitzen dituzten gizonen baino. Litekeena da aldartearekin lotura duten arazoak izatea kontsumo handiago horren eragileak. Izan ere, aise ekiten zaio medikazioari sufrimendua saihesteko, arazoei arrazionalki aurre egin beharrean.

Kontuan izan beharreko datua da hori osasun-zerbitzuekin elkarlanean egiten diren prebentzio-jardueretarako.

Beste jokabide adiktibo batzuk

Informazioaren teknologiez gazteek egiten duten erabilera ere arazotzat jo dute galdetegiari erantzun diotenek.

Gizarte-zerbitzuen eta hezkuntza-baliabideen alorretako langileek adierazi dutenez, kezkatuta daude adingabeek telefono mugikorra eta sare sozialak nola erabiltzen dituzten ikusita. Lehen jaunartzeko oparia, sarritan, telefono mugikor bat izaten dela diote eta, jakina, Internetarako sarbidea izaten duela.

Ikastetxe batzuetan hasiak dira Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) ikasleei dakartzkieten arriskuak jorratzen. Hezitzaileen iritziz, Lehen Hezkuntzako 5. ikasturtea une aproposa da gaiari ekiteko. Ikastetxe batzuek LHko 4. ikasturtean heldu diote gaiari, baina goizegi delakoan daude aipatu zerbitzuetakoak.

Nolanahi dela ere, batera egin behar omen dira ikasgeletako heziketa-lana eta ikasle bakoitzaren etxekoa; bestalde, gurasoen kontrola ez dela nahikoa diote, eta gurasoek eta adingabeek hobeto ezagutu behar lituzketela tresna horien arriskuak, hartara haien erabilera arduratsuagoa izan dadin.

Haien iritziz, gai hauek guztiak jorratu behar dira neska-mutikoekin: Internet, sare sozialak, youtuberrak, bizimodu horretaz duten ikuskera, beren gailuetara igotzen dituzten edukiak eta horrek ekar ditzakeen ondorioak, mugak non dauden, jende batzuek beren bizitza sare sozialetan azaltzeko duten premia, gizarteratze-modu berriak eta abar.

Bestalde, beste arazo bat ere, berria, aipatu dute elkarrizketatuek: substantziarik gabeko adikzioak edo mendekotasunak. Herritar batzuk kezkatuta daude kirol-apustuak direla eta, geroz eta gehiago baitira zaletasun hori dutenak, batez ere gazteak eta adin ertaineko jendea, gizonezkoak gehienak.

Bi apustu-areto daude herrian; taberna gehienetan, berriz, kirol-apustueterako makinak. Elkarrizketatuen ustez, adingabeek ez lituzkete eskura eduki behar apustuak egiteko bitartekoak, eta arazoa ez dago kontrolpean.

Beste kontsumo-leku batzuk: gazteen lokalak eta kalea

Gazteen lokalak eta kalea nerabeen eta gazteen topagune bihurtu dira, eta, honenbestez, aipatutako substantziak kontsumitzeko leku ere bai, Hiritar Segurtasunaren sailetik azaldu digutenez.

Elkarrizketatuen iritziz, talde hori da ahulena, eta arreta berezia egin behar zaio: informazio objektiboa eman behar zaie gazteei eta nerabeei drogen ondorioez eta arriskuez, ondo informatuta har ditzaten erabakiak eta arriskuak gutxitu ditzaten.

Kezka eta kexu ugari eragiten dute gazteen lokalek herritarren artean, eta oso zabalduta dago uste hau: lokal horietan drogak kontsumitzeko aukera eta askatasun gehiago dute gazteek.

Nerabeentzako eta gazteentzako kultura-eta aisialdi-eskaintza erakargarrik ez dagoenez, 12-13 urtetik gorako neska-mutiko asko lokal bat alokatzen saiatzen direla diote elkarrizketatuek.

Badago udal-araudi bat lokal horietarako, baina legez izena emanda ez egotearen arrazoietako bat horixe izan daiteke hain zuzen ere, lokalak irekitzeko baldintzak alegia. Adinez nagusiak badira elkarte bat eratu behar dute; adingabeak baldin badira, pertsona heldu batek ordezkatu behar ditu, eta higiene-, osasun- eta bizigarritasun-baldintza batzuk ere bete behar dituzte.

Sei lokal daude legez izena emanda, baina, horiez gain, beste 36 daudela diote herritarrek. Gazteen lokal batzuk itxi egin dituzte, herritarrekin bizikidetza-arazoak sortzen zituztelako. Ertzaintzak esku hartu behar izan du horrelakoetan. Kexarik gehienak zaratagatik, musikaren bolumenagatik, zikinkeriatatik eta gazteen lokaletako substantzia-kontsumoengatik aurkeztu ohi dira.

Udal-ordenantzek diotenez, debekatuta dago gazteentzako lokaletan alkohola eta tabakoa kontsumitzea. Alkoholari dagokionez, adingabeek ezin dute kontsumitu; tabakoari dagokionez, berriz, ezin da erre, gazteen etxabeak ostalaritzako lokaltzat jotzen direlako. Bat datoz bi debeku horiek Adikzioei buruzko Legeak dioenarekin. Baina, substantzien erabilera arautzeaz landa, udalak ez dauka esku hartzeko eskumenik.

Hori dela eta, elkarrizketatuek alderdi hauen kontrol zorrotzagoa eskatzen dute: lokalak irekitzeko baimenak, ixteko ordutegiak, lokal-barruan dagoen jendea eta lokalaren erabilerak dakartzan arazoak.

Kalean kontsumitzen diren substantziei (alkohola, batez ere) eta kaleko zurrutari ("botiloia") dagokionez, elkarrizketatuek diote apenas ikusten dela horrelakorik, gazte-jendeak bere lokaletan kontsumitzen baitu. Eremu pribatuak izaki, ez da arazoa "ikusten".

Ondorio nagusiak

Elkarrizketatuen ekarpenak aztertuta, hona hemen adikzioak direla-eta herritarrek dituzten kezka eta erronka nagusiak:

- Kezka gizarteak alkoholaren kontsumoarekiko duen tolerantziarengatik.
- Kezka gizarteak kalamuaren kontsumoa dela-eta duen pertzepzio positiboarengatik.
- Kezka nerabeek eta gazteek alkohola kontsumitzeko duten moduagatik (asteburuetan eta intentsiboki, batik bat).
- Kezka aurreratu egin delako substantzien kontsumo problematikoa hasten den adina.
- Kezka nerabeek eta gazteek substantziak kontsumitzeko beste egoera eta leku batzuk agertu direlako.
- Kezka teknologia digitalekin lotura duten jokabide adiktiboak direla eta.
- Kezka geroz eta emakume gehiagok kontsumitzen dituztelako aipatutako substantziak.
- Kezka substantzia horiek eskuratzeko erraztasuna dela eta.
- Kezka Adikzioei buruzko Legea ia ez delako aplikatzen substantzien kontrolari, salmentari eta kontsumoari dagokionez.

Ekintzak eta ekintza-proposamenak

Adikzioei buruz dituzten iritziak ez ezik, elkarrizketatuek zenbait proposamen interesgarri ere helarazi zizkiguten: batzuek kontrol-neurriak eskatzen zituzten; beste batzuek, berriz, prebentzio-neurriak.

Substantzien ESKAINTZA KONTROLATZEKO proposamenak:

- Hiritar Segurtasunaren sailak zorrotzago zaintzea eta kontrolatzea, ostalaritzako establezimenduetan eta dendetan, alkoholaren eta tabakoaren salmenta, adingabeek halakorik erostea oztopatzeko.
- Zorrotzago zaintzea eta kontrolatzea adingabeen alkohol-, tabako- eta kalamu-kontsumoa gazteen lokaletan eta ikastetxeen inguruetan.
- Zorrotzago zaintzea eta kontrolatzea jende helduaren tabako- eta kalamu-kontsumoa ostalaritzako lokaletan eta eremu publikoetan, Adikzioei buruzko Legea betearaziz.


- Gazteen lokalen gaineko udal-ordenantza berrikustea eta gaur egungo egoerara egokitzea.

PREBENTZIO-ALORREKO proposamenak:

- Sare sozialen erabilerak dakartzan ondorioei eta arriskuei buruzko informazio- eta prebentzio-ekintzak antolatzea, Lehen Hezkuntzatik hasita.
- Alkohola eta kalamua kontsumitzeak dakartzan ondorioei eta arriskuei buruzko informazio- eta prebentzio-ekintzak antolatzea, batez ere Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Oinarrizko Hezkuntzako eta Trebakuntza Zikloetako ikasleentzat.
- Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-proposamenak diseinatzea, familientzat batez ere, eta garrantzi berezia ematea babes-faktoreei.
- Sentsibilizazio-ekintzak garatzea, batez ere erretiratuentzat, alkoholaren kontsumoak dakartzan ondorioei eta arriskuei buruz.
- Nerabeentzako eta gazteentzako prebentzio- edo trebakuntza-ekintzak martxan jartzea haiek elkartzen diren lekuetan (gazteen lokaletan, adibidez).
- Dinamizatzailer bat izendatzea, udal-zerbitzu zein -baliabideen eta gazteen lokalen artean bitartekari gisara jardun dadin.
- Gazteen lokalen erabilera erregulatzen duen araudia berrikustea.
- Udalaren kultura-eskaintza areagotzea eta herritarren interesen eta premien arabera antolatzea, ostalaritzako lokalen alternatiba gisara, non kontsumoa sustatzen baita.
- Kontsumo arduratsua sustatzea, batez ere festetan, jai-batzordearekin elkarlanean jardunez.
- Aisialdi-jarduera osasungarriak antolatzea, batez ere 12-16 urte bitartekoentzat, apenas baitago haientzako eskaintzarik.
- Familientzako aisialdi-guneak prestatzea, seme-alabak ere haietara eraman ditzaten.
- Kirola babes-faktore gisara sustatzea, eta kirol-jardueren eskaintza eta ordutegia handitzea.
- Kirol-eskaintza erakargarria egitea nerabeei (kirol anitzeko ekintzak).
- Prebentziozko kirol-ekintzak egiten jarraitzea ("Ermua mugi", adibidez).
- Erraztasun ekonomikoak eskaintzea, gazteek eta adingabeek eskurago izan ditzaten kirol-ekipamenduak.
- Osasun-zerbitzuekin elkarlanean jardutea, herritarren artean substantzia-kontsumo problematikoak atzemateko eta, hartara, arreta goiztiarra eskaintzeko arrisku-egoeretan.
- Gazteentzako enplegua sustatzea, udalaren eta eskualdeko enpresen artean kanpainak eginez eta hitzarmenak sinatuz.
- Langabeentzako eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuen daudenentzako lan-eskaintza handitzea.

4. Lehenetasuna duten guneak eta taldeak

Diagnostikoaren emaitza aintzat hartuta, erabaki beharko litzateke zer eremu pribatuk eta publikok duten lehenetasuna osasuna sustatzeko prebentzio-kanpaina bati ekiteko.




5. Ildo estrategikoak eta ekintza-proposamena

Udal- mailako adikzioei buruzko plan komunitario batek lehentasun hauek izan behar ditu:

<i>Eskaintzaren kontrola</i>	Murritzitu egin behar da drogen eta adikzioa sor dezaketen jardueren eskaintza (zorizko jokoak...), haiek erregulatuz; bestalde, kontrolatu egin behar da drogen legez kanpoko trafikoa, eta indarrean dagoen araudia betearazi.
<i>Prebentzio unibertsala</i>	Babes-faktoreak bultzatu eta ohitura eta jarrera osasungarriak sustatu behar dira, jokabide adiktiboak saihesteko.
<i>Prebentzio selektiboa eta egokitua</i>	Eskubide gisara bermatu behar da pertsona eta talderik ahulenen premietara egokitutako prebentzioa eta osasunaren sustapena, batez ere jende gaztea helburu duena.

Lehentasuna duten eremuak eta taldeak aintzat harturik, batez ere hiru alor hauek jorratu behar dira:



ESKOLA		
HELBURUAK	- Jarrera eta ohitura osasungarriak sustatu behar dira, eta jokabide adiktiboen aurkako babes-faktoreak bultzatu, eskolako hezkuntza-prozesuaz baliatuz. - Babes-faktoreak sustatu behar dira, jokabide adiktiboen eta haiekin lotura duten egoeren arriskuak murrizteko ikasle ahulenen artean.	
ESTRATEGIAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1. ESTRATEGIA: Ermuko ikastetxeetako irakasleak trebatzea (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergoa, Trebakuntza Zikloak eta OLH) eskola-curriculumetan adikzioak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko faktoreak gara ditzaten.	1. ekintza: Laguntza teknikoa eta baliabide didaktikoak eskaintzea irakasleei, ikasgeletan prebentzio-jarduerak gara ditzaten.	- Erabilitako materialak. - Egindako trebakuntza-tailerrak. - Parte-hartzaileak, generoaren arabera bereziak. - Gogobetetze-maila.
	2. ekintza: Irakasleei trebakuntza eskaintzea, eskariaren arabera betiere, gai hauei buruz: adikzioak, prebentzio-programak eta ikastetxeetan haiek aplikatzeko moduak.	
2. ESTRATEGIA: Irakasleak trebatzea, bereziki ahulak diren eta jokabide adiktiboak dituzten adingabeak garaiz detektatzeko eta artatzeko.	1. ekintza: Esku hartzeko estrategiak antolatzea ikastetxeen eta udalaren gizarte-zerbitzuen artean kontsumo problematikoak egiten dituzten adingabeak artatzeko.	- Egindako trebakuntza-tailerrak. - Gizarte-zerbitzuen esku jarritako kasuak. - Parte-hartzaileak, generoaren arabera bereziak. - Gogobetetze-maila.
	2. ekintza: Informazioa eta trebakuntza ematea irakasleei, droga-kontsumo problematikoak eta adikzioekin lotura duten jokabide disruptiboak nola kudeatu jakin dezaten beren hezitzaile-lanean.	
	3. ekintza: Ikastetxeen eta Hiritar Segurtasun sailaren koordinazioa sustatzea, eskolen inguruan substantzia adiktiboen salmenta eta kontsumoa eragozteko.	
3. ESTRATEGIA: Ikasleak trebatzea, jokabide osasungarriak berenganatzeko gaitasunak, trebeziak eta tresnak izan ditzaten.	1. ekintza: Trebakuntza-ekintzak antolatzea Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, ohitura osasungarriak eta jokabide adiktiboen prebentzioa sustatzeko: bizikidetza eta elkarrenganako errespetua, teknologia berrien arriskuak; ikasle helduenekin, berriz, tabakoaren eta alkoholaren kontsumoaren prebentzioa.	- Egindako trebakuntza-ekintzak. - Parte hartu duten ikasleak, generoaren arabera bereizita. - Gogobetetze-maila. - Ezarritako programak. - Parte hartu duten ikastetxeak.
	2. ekintza: DBHtik aurrerako ikasleen artean trebakuntza-ekintzak egitea, batez ere alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoaren eta jokabide adiktiboen (onlineko jokoak, kirol-apustuak) prebentzioa bultzatzeko eta harreman afektibo eta sexual osasuntsuak sustatzeko.	
	3. ekintza: Ikastetxeekin elkarlanean, sentsibilizazio-kanpainak egitea egun jakin batzuk erreferentzia hartuta: HIESaren aurkako Nazioarteko Eguna, Tabakorik Gabeko Eguna, Osasunaren eguna eta abar.	

4. ESTRATEGIA: Hezkuntza-tresnak eskaintzea ikasleei, jokabide arduratsuak ikas ditzaten substantzia adiktiboen kontsumoari, jokabide adiktiboei eta teknologia digitalen erabilera problematikoari dagokienez.	1. ekintza: DBHtik aurrera, besteak beste programa hauek sustatzea ikastetxeetan: "Kerik gabeko ikastetxeak" (tabakismoaren prebentziorako programaren barruan) eta "Iceberg" (Adingabeak eta Alkohola Programaren barruan). 2. ekintza: Ikastetxe jakin batzuetan, alkohola eta beste substantzia batzuk kontsumitzeak dakartzan arriskuak gutxitzeko programak sustatzea ("Arriskua: alkohola" eta "Arriskua: drogak", hurrenez hurren).	• Egindako tailer-kopurua. • Parte hartu duten ikasleen kopurua. • Parte hartu duten ikasleak, sexuaren arabera bereizita. • Gogobetetze-maila.
--	--	--

FAMILIA		
HELBURUAK	- Jokabide adiktiboetatik babesteko faktoreak sustatzea, eta jarrera eta ohitura osasungarriak bultzatzea, familian sortzen den heziketa-prozesuaren bitartez. - Familiak trebatzea eta ahalduntzea, ahultasuna eta, horrenbestez, arrisku-faktoreak murrizteko.	
ESTRATEGIAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1. ESTRATEGIA: Familiak trebatzea, gurasoen gaitasunak hobetzeko osasun-heziketaren eta adikzioen prebentzioen alorrean, prestakuntza- eta informazio-eremuak sortuz.	1. ekintza: Ikasleen gurasoen elkarrekin eta ikastetxeekin lankidetzan jardutea, gurasoen kezken eta eskarien berri jakiteko haien seme-alaben heziketa dela eta.	- Egindako lankidetzak eta topaketak. - Egindako trebakuntza-ekintzak. - Parte hartu duten pertsonak, sexuaren eta adinaren arabera. - Gogobetetze-maila
	2. ekintza: Gurasotasun positiboa garatzeko, trebakuntza-eremuak sortzea, gai hauei buruzko gaitasunak eta trebeziak jorratzearen: osasunaren sustapena, adikzioen prebentzioa, gatazken komunikazioa eta konponketa, osasun sexualari buruzko heziketa, diziiplina, erantzukizuna, arauak eta mugak...	
2. ESTRATEGIA: Seme-alaben ikastetxeetan osasuna sustatzeko antolatzen diren ekintzetan familien partaidetza bultzatzen saiatzea.	1. ekintza: Familiei seme-alaben ikastetxeetan osasuna sustatzeko egin behar diren ekintzen berri ematea.	- Erabilitako materialak (gidak, dokumentuak...) etamaterial horiek hartu dituzten familiak. - Gogobetetze-maila
	2. ekintza: Hezkuntza-tresnak eskaintzea familiei, ikastetxeetako lanaren osagarri gisa erabil ditzaten (dokumentazioa, gidak...).	
3. ESTRATEGIA: Proposamen eraginkorrak bultzatzea garaiz detektatzeko kontsumo problematikoei dagokienez arrisku eta ahultasun-egoera berezian dauden familiak eta adingabeak eta nola esku hartu erabakitzeke.	1. ekintza: Udalaren gizarte-zerbitzuekin eta osasun-zentroekin koordinatuta jardutea arreta egokia jaso dezaten kontsumo problematikoko adingabeak dituzten familiek.	- Egindako koordinazio-lanak. - Erantzundako kontsultak. - Zerbitzu espezializatuen esku jarritako kasuak.
	2. ekintza: Erraztasunak ematea behar duten familiei edo herritarrei adikzioak tratatzeko zerbitzu espezializatuez balia daitezen.	

GIZARTEA		
HELBURUAK	- Jokabide adiktiboetatik babesteko faktoreak sustatzea gizarteak, batez ere bizimodu zein balio sozialak eta arriskuen ezagutza objektiboa bultzatuz. - Kontsumo arriskutsuak eta aisialdiko substantzia-kontsumoari dagozkion arriskuak murriztea, batez ere gazteen eta kontsumo-modalitate horien zaleen artean.	
ESTRATEGIAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1. ESTRATEGIA: Kontsumo arriskutsuak eta aisialdiko substantzia-kontsumoari dagozkion arriskuak murriztea, batez ere gazteen eta kontsumo-modalitate horien zaleen artean.	1. ekintza: Herritarrei informazioa ematea Adikzioei buruzko Legeaz, batez ere alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoari dagokionez, horiek baitira gehien kontsumitzen diren substantziak eta arrisku-pertzepzioerik txikiena eragiten dutenak.	- Egindako informazio-ekintzak. - Egindako gizarte-ekintzak. - Ekintzak parte hartu duten herritarrak.
	2. ekintza: Herritarrei informazioa ematea adikzioak direla-eta udalerrian egiten ari diren ekintzez, eskura ditugun komunikazio-bideak erabiliz (webgunea, herriko aldizkaria).	
2. ESTRATEGIA: Substantzien salmenta eta kontsumoari buruzko araudia (Adikzioei buruzko Legea) betetzen den egiaztatzea, eragilean arteko koordinazioa hobetuz.	1. ekintza: Herrian eta udalaren lokaletan (kirol-instalazioetan, batez ere) antolatzen diren ekintzak Adikzioei buruzko Legearekin bat datozen egiaztatzea.	- Egindako kontrol-lanak. - Ezarritako zehapenak. - Substantzia toxikoen kontsumoa dela-eta egindako osasun-ekintzak. - Adingabeen familiei bidalitako gutunak. - Familiekin adostutako lan-programak.
	2. ekintza: Koordinazio-sistema bat ezartzea Hiritar Segurtasun sailarekin, Adikzioei buruzko Legea betetzen den behatzeko (dagozkion eskumenen arabera), batez ere alor hauei dagokienez: alkoholaren salmenta eta kontsumoa, kalamuaren kontsumoa eta adingabeen kirol-apustuak.	
	3. ekintza: Lortzea ostalariek udalarekin bat egin dezaten Adikzioei buruzko Legea aplikatzen, batez ere gaueko aisialdiko lokalen jabeek.	
	4. ekintza: Gutunak eta jakinarazpenak bidaltzea kaleko zurrutean identifikatutako adingabeen familiei. Adingabe horien familiekin jarduteko lan-programa bat ezartzea.	
3. ESTRATEGIA: Prebentzioa eta osasuna sustatuko dituen lan-programa antolatzea, batez ere festa- eta aisialdi-giroan diharduten nerabeei eta gazteei zuzendua.	1. ekintza: Haurrentzako eta gazteentzako eremuetan, osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa bultzatzea, berriazko esku-hartzeen bidez.	- Egindako ekintzak. - Ekintzetan parte hartu duten herritarrak. - Parte hartu dutenen generoa.
	2. ekintza: Festa-batzordearekin eta ostalariekin elkarlanean aritzea adikzioen prebentzioa sustatzen, batez ere jai-giroko aisialdian.	
	3. ekintza: Informazio materiala banatzea jai-giroko aisialdian substantzia-kontsumoa prebenitzeko eta haren arriskuak murrizteko.	
	4. ekintza: Aisialdirako eta denbora liberako programa osasungarri bat bultzatzea nerabeen eta gazteen artean, udalaren beste sail eta baliabide batzuekin elkarlanean (Kultura, Gazteria...).	

4. ESTRATEGIA: Osasun-eragile gisara trebatzea adingabeekin eta gazteekin lan egiten duten gizarte-eragileak, eta aholku ematea..	1. ekintza: Trebakuntza-ekintzak antolatzea adingabeekin lan egiten duten profesional, elkarte, ostalari eta abarrentzat, osasunaren faktorea txertatzeko eta jokabide adiktiboekin lotura duten egoerak nola kudeatu irakasteko, bakoitzari dagokion arloan betiere.	• Egindako trebakuntza-ekintzak. • Parte hartu duten taldeak. • Ekintzetan parte hartu duten herritarrak. • Ekintzetan parte hartu duten herritarren adina eta generoa. • Gogobetetze-maila.
5. ESTRATEGIA: Sareko lanari ekitea adikzioen alorrean diharduten gizarte-eragile guztiekin.	1. ekintza: Lehen Arretako Osasun Zentroarekin elkarlanean jardutea kontsumo-egoerak garaiz detektatzeko eta prebentzio- zein sentsibilizazio-programak ezartzeko; besteak beste, tabakoa uzteko programak. 2. ekintza: Udalaren Berdintasun Zerbitzuarekin koordinatuta jardutea osasun fisikoari zein psikikoari buruzko emakumeentzako zenbait ekintza antolatzeko; besteak beste, psikofarmakoen kontsumoari buruzkoak. 3. ekintza: Udalaren Berdintasun Zerbitzuarekin koordinatuta jardutea osasuna sustatu eta adikzioak prebenitzeko ekintzak genero-ikuspegia barne dela garatzearen; besteak beste, festetan egin beharreko esku-hartzeak, denentzako dibertsio-eremu izan daitezen, generoa edozein dutela ere. 4. ekintza: Hiritar Segurtasun sailarekin koordinatuta aritzea hiri-eremu segurua eta osasungarria eskaintzeko herritar guztiei eta arretarik egokiena emateko arauak urratzen dituzten adingabeei. 5. ekintza: Kirol Sailarekin koordinatuta jardutea kirol-jarduerak eta ariketa fisikoa sustatzeko, bizi-ohitura osasungarriak bultzatzeko programaren barruan (Ermua Mugi proiektua).	• Sail edo estamentuekin egindako koordinazio-lanak.
6. ESTRATEGIA: Arriskupean dagoen taldeko kide batzuei aholkua eta trebakuntza ematea, beren inguruan prebentzio-eragile izan daitezen.	1. ekintza: Zenbait ekimen sustatzea gazteen artean, alkoholari eta kalamuari buruzko informazio baliagarria eta objektiboa hedatzeko.	• Egindako trebakuntza-ekintzak. • Parte hartu duten taldeak. • Ekintzetan parte hartu duten herritarrak. • Ekintzetan parte hartu duten herritarren adina eta sexua. • Eragileen inguruan kontsumoek zenbat egin duten gora edo behera aztertzea.
7. ESTRATEGIA: Gazteen aisialdi-gune berrietan arreta jartzea, ohitura	1. ekintza: Nerabeak eta gazteak elkartzen diren guneetara jotzea, prebentzio-ekimenak eta arriskuak murriztekoak proposatzeko.	• Kaleko zurrutean ari zirela identifikatutako jendearekin kalerik

osasungarriak sustatzeko.	2. ekintza: Nerabeak eta gazteak elkartzen diren gunetara jotzea, aisialdi-aukera alternatiboak eta osasungarriak ezagutarazteko eta proposatzeko.	bertan egindako esku-hartzeak.
	3. ekintza: Kalean edaten duten gazteentzako esku-hartzeak garatzea kalean bertan.	


6. Planaren ebaluazioa eta koordinazioa

Planaren ebaluazio jarraitua egingo da, urtero, estrategia bakoitzari atxikitako adierazleen bidez.

Nolanahi dela ere, Plana garatzeko epea amaitutakoan ebaluazio orokorra egin behar da, PROZESU-ADIERAZLE hauek, gutxienez, kontuan hartuta:

Nº de centros educativos con programas de promoción para la salud y prevención de adicciones.	
Nº de programas ejecutados (en los diferentes ámbitos).	
Población participante (en cada uno de los programas y/o actividades ejecutadas: alumnado, profesorado, padres y madres, ...).	
Nº de actividades de formación para diferentes agentes (profesorado, agentes mediadores, ...)	
Recursos didácticos distribuidos.	
Materiales informativos o de sensibilización generados y distribuidos.	
Participación en medios de comunicación.	
Entidades colaboradoras.	
Recursos comunitarios con los que se haya trabajado de forma coordinada y acciones desarrolladas fruto de esa relación.	
Nº de consultas de asesoramiento realizadas y motivo de consulta.	
Nº de derivaciones resultado de la detección temprana.	

Bestalde, herriko zenbait eragile eta profesionalen berariazko eskariak direla eta, zenbait mekanismo ezarriko dira Udalaren sailak, departamentuak eta baliabideak elkarrekin koordinatu eta bi helburu hauek lortzeko: elkarrekin proiektuak garatzeko eta lehendik martxan daudenak hobetzeko, betiere osasunaren sustapena, adikzioen prebentzioa eta jokabide problematikoei lotutako arriskuak murriztea ardatz direla.



7. Eskerrik asko

Ortzadar Fundazioak prestatu du "Ermuko Udalaren Adikzioei buruzko Plana", Udalaren zenbait sail eta baliabidetako teknikari eta politikarien ekarpenak oinarri hartuta: gizarte-zerbitzuak, berdintasuna, gazteria, kultura, hezkuntza, osasuna, hiritar segurtasuna... Halaber, aintzat hartu dira ausaz elkarriketatutako herritarren ekarpenak, herriko elkarteak..., baita ikastetxeetan substantzia-kontsumoei buruz egindako diagnostikoa ere.

Horien guztien partaidetzari esker, adikzioei buruzko pertzepzioa ez ezik ekarpenak ere jaso ditugu, ekintza bihurtu eta Plan honetako helburuak betetzen lagundu dezaten.

Hona herritar, eragile eta elkarte horien zerrenda:

- Hiritar Segurtasunaren saila
- Hurbiltzaile.
- Osakidetza: Ermuko anbulatorioko erizain bat, Eibarko Osasun Mentalaren alorreko 9 espezialista.
- DBH, Batxilergo eta Oinarrizko Hezkuntzako ikasleak.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolak: Anaitasuna Ikastola, Ongarai Eskola, San Lorenzo HLHI, San Pelayo ikastetxea.
- Bigarren Hezkuntza institutuak: Ermua B.H.I., San Pelayo Ikastetxea.
- Ermua-Mallabia Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxea.
- Anaitasuna Ikastolako, Ongarai Eskolako, Eskolabarri Eskola, Ermua B BHIko guraso-elkarteak.
- Gizarte Zerbitzuak.
- Talde sozioedukatiboa.
- Berdintasun-teknikaria.
- Hirigintza-alorreko teknikaria.
- Euskara-teknikaria.
- Immigrazio-teknikaria.
- Kultura-teknikaria.
- Udalaren Kirol Institutua.
- Liburutegia.
- Plangintza estrategikoa (kalitatea, webgunea eta komunikazioa).
- Gurutze Gorria, Euskal Birusa, Gazte Asanblada, Antxixiketan, jai-batzordea eta Ermuko Xake Kluba.
- Ausaz hautatutako eta telefonoz elkarriketatutako 277 herritar.

Horien guztien parte-hartzerik gabe nekez egingo genukeen egoeraren diagnostikoa eta garatuko genukeen Adikzioei buruzko Udal Plan hau.